

# EUSKALTEGIEN TXOKOA

## AEK EUSKALTEGIA



**Zilegi mendietatik  
Zilegi eskoletara**



Zilegi-mendiak / II



Zer dira zilegi-eskolak / II



Zilegi-eskoletako  
gai emaileak / III





**Euskara ikasteko saio** magistralekin puskatu eta euskara lan tresna izaki, herria eta euskaltegia uztartzeko saioak antolatzen ditu Zilegi-eskolak. *Hartu eta eman* da Zilegi-eskolaren leloa eta bertan zure zaletasunen arabera hartzaile zein emaile izan zaitezke.

## Zilegi-eskoletako gai emaileak



**EDURNE MENDIZABAL TOLOSA**  
SOZIOLOGOA. HIZKUNTZA EZ SEXISTA

Hitzaren gudan, irabazle denon arteko errespetua.



**MARTA ZUÑIGA HUERTA**  
PIANO IRAKASLEA. ERLAJAZIOA

Saio hauetan ikasten duzuna praktikan jarriz, lasaiago biziko zara.



**KISTIÑE LUJANBIO GALDEANO**  
ABOKATUA

Argi azaldu zizkigun herentzia kontuak.



**SUSANA MAROTO REBOLLO**  
SEXOLOGOA

Zenbat gauza ikasi ditugun!  
Eta zenbat ikasteko gogoak piztu digun!



**MIREN ETXENIKE URRETABIZKAIA**  
IRAKASLEA. SENDABELARRAK

Gure zenbait gaixotasun goxoago tratatzen ikasi dugu.



**MAIDER ZILBETE** - ANTROPOLOGOA  
SEXUALITATEA, POST-PORNOA,  
QUEER MUGIMENDUA...

Mundu zabalean badago zer ikasia.



**LURDES SARASOLA**  
EUSKARA IRAKASLEA. DIETETIKA

Modu orekatuan bizi eta jan. Lurrak ematen dizkigun produktuak baliatuz, garaian garaikoa.



**MIKEL ARRIETA IRAOLA**  
HISTORIA IRAKASLEA

Berarekin ezagutu dugu antzinako bizitza, akelarreak, hainbat pertsonaia, artea...



**LUZI DE CELIS BAÑOS**  
AISIALDI BEGIRALEA. KUADERNAZIOA

Uste genuen baldarrak ginela, baina ze eskulan politak egin ditugun!



**PAKI CABALLERO ETA TXURRI**  
JATETXE BEJETARIANOKO SUKALDARIAK

Herriko zenbait elkartetan hor aritu zaizkigu plater goxo-goxoak nola prestatu erakusten.



**IÑIGO ROYO MANTEROLA**  
REFLEXOTERAPIA.

Oin azpian gure gorputz-atal guztiak islatzen dira. Oinetan masajeak emanez gozatu eta sendatzeko bidean nola jarri erakutsi digu.



**ALBERTO ELOSEGI** - ARGAZKILARIA.  
ARGAZKILARITZA DIGITALA.

Teknologia berriak erabiliz zenbat gauza egin daitezkeen!



**XABAT CASADO ZUMETA**  
FISIOTERAPEUTA

Bere azalpenei esker ezagutu dugu gure gorputz mugagabea, beste mundu goxoago bat.


*Haez gain beste batzuk ere egin ditugu:  
Jolastuz ikasi eta ikasiz jolastu;  
Euskal abizenak; Zeramika tailerrak.*

**Zalantzagunea.** Zalantza gramatikalak, ohiko akatsak eta arauak argitzeko gunea. Edozein herritarrek har dezake parte astean behin egiten den gune honetan.

**Mintzagunea.** Mintzamina lantzeko astean behin egiten den saioa. Aurrekoan bezala bertan bakarrik matrikula daitezke herritarrak.



PARTE HARTZAILEEN AHOTIK



**Gregorio Arrospe** - Herritarra

«Sendabelarren saioetan aritu naiz. Jakin eta izena eman nuen»

- Zertan parte hartu duzu?

Sendabelarren saioetan aritu naiz. Ikastaroaren berri izan nuenean, gaia interesatzen zitzaidala ikusita, berehala eman nuen izena.

- Zer jaso duzu?

Niri gai hori asko gustatzen zait, eta horregatik eman nuen izena. Beti dago gehiago ikasteko aukera, eta halaxe izan da. Oso gustura aritu naiz, modu dinamiko eta praktikoa aritu gara, ukendu bat ere egin genuen eta inguruko batzuei eman ostean, ikusi dut oso emaitza onak eman dituela.



**Javier Zubimendi** - Ikaslea

«Hainbat ikastaro egin ditut: erlaxazioa, ukenduak...»

- Zertan parte hartu duzu?

Hainbat ikastaro egin ditut: erlaxazioa, ukenduak, keramika, sendabelarrak eta elikadura bejetarianoa.

- Zer jaso duzu?

Nik ez dut ahaztuko zer den birika, sorbalda, belaua,... erlaxazio ikastaroa egin genuelako. Gauza bat da hitzak deskribapenaren bidez ikastea eta beste gauza bat hitz horiek jakitea. Arrazoi berdinagatik ikasi ditut sukalde tresnak eta janariaren izenak. Eta sendabelarren ikastaroan landareei eta naturari buruzko gauza asko ikasi ditugu.



**Jone Atxaga** - Herritarra

«Orain etxean nik egindako intsusa ukendua erabiltzen dugu»

- Zertan parte hartu duzu?

Oraingo hiru ikastarotan parte hartu dut: sendabelarrak (intsusa ukendua), herentziak eta masajea. Hurrengo astean berriz ere, sendabelarren beste bat egiteko asmoa dut.

- Zer jaso duzu?

Hiru ekintzak oso desberdinak izan dira eta bakoitzetik gauza berriak ikasi ditut. Orain etxean nik egindako intsusa ukendua erabiltzen dugu eta masaje txikiak ematen ditut. Honez gain jende ugari ezagutu dut eta giro onean joan dira saioak.

ETA ZER DIOTE GAI EMAILEEK?

**Edurne Mendizabal** - Hizkera ez sexista



«Emakume edo gizon 'izenburua' jartzen diguten unetik sekulako ezberdintasunak ematen dira eta horrek denoi egiten digu kalte»

**-Zein ikasketa egin dituzu?** Soziologia eta gero generoa, inmigrazioa eta tokiko garapenari buruzko ikasketak.  
**-Guk "hizkera ez sexista" ikastaroa egin genuen, baina zuk ikastaro gehiago ere ematen dituzu (emakumeak publikoan hitz egiteko,...) noiz erabaki zenuen emakumearen gaia lantzen hastea?**

Genero-sexuaren gaiarekin

betidanik izan dut jakinmina, eguneroko bizipenak ulertzeko premiagatik abiatuta, seguraski.

Kontua da emakume edo gizon "izenburua" jartzen diguten unetik sekulako ezberdintasunak ematen direla: bizi baldintzak, jokatibideak, helburuak, komunikazioa, sexualitatea... oso bestelakoak ditugu, jendar-teak "inposatuak". Nire

ustez, honek ez dio inorri mesede egiten, guztiak gara kaltetuak, emakumeak esparru batzuetan eta gizonek besteetan.

Honen inguruan betidanik izan dut jakin-nahia, ulertzeko eta aldatzeko premia. Lagun artean eta talde ezberdinetan ere dexente landu dugu gaia, eta azkenean lanbide bihurtzen ari da.

**-Zer iruditu zaizu euskaltegiko esperientzia?**

Oso interesgarria eta positiboa. Bi urtetan eman dut eta eztabaida polita sortzen da. Gainera aberasgarria da emakumeak eta gizonak egotea bakoitzak bere ikuspegia baitauka.

**-Zilegi-eskolak zein ate irekitzen ditu? Zer esango zenieke herritarrei?**

Oso potentia iruditzen zait. Ikasle, irakasle eta herritarrek parte hartzeko aukera ematen du. Ate asko irekitzen ditu denok baitaizkagu gauza asko ikasteko eta erakusteko.

**Luzi de Celis** - Enkuadernazioa



«Lehen euskara ikasten aritu nintzen eta orain haur txokoetan klaseak euskaraz ematen ari naiz. Ez da hain zaila izan»

**-Lehen ikasle moduan arituz zinen euskaltegian, baina oraingoan jasotzen ordez ematen aritu zara. Nolatan?**

Haur txokoetan ematen ditudan ikastaroak ere euskaraz dira, beraz ez da hain zaila izan.  
**-Eskulanak gustuko dituzula badakigu. Enkuadernazio tailerra eman duzu. Zer egin duzue?**

Hasieran koadernazio ikastaro bat egin nuen eta ondoren larrua lantzeko beste bat. Gero koadernazioa egiten hasi nintzen nire kabuz. Haur txokoan

eskulanak, karpetak, koadernazioak... egiten ditugu. Euskaltegian liburuxka bat egin dugu eta faszikuluak nola koadernatu (taparekin ala gabe) ere azaldu dugu.

**-Ikasitakoa gero etxean aplikatzea erraza al da? Zer behar da eta non lortzen da?**

Bai, oinarriko materiala (kartoiak, guaflex,...) Tamayo edo Amarako Txertoa liburudendan eros dezakegu. Gero gauza landuagoak egiteko prentsa,... eta beste hainbat tresna behar dira.